



**EBAZPENA, 2023ko azaroaren 6KOA, POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ EZARTZEN BAITA 2021eko ABENDUAREN 27KO EBAZPENAK (2022ko urtarrilaren 14ko EHAA, 9. zk.) DEITUTAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIA KIDEGOETAKO (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) ETA UDALTZAINGO ZERBITZUETAKO OINARRIZKO ESKALAKO AGENTE KATEGORIAN TXANDA IREKIAREN BIDEZ SARTZEKO HAUTAKETA-PROZEDURAKO PRAKTIKALDIAREN IRAUPENA, GAINDITZEKO ETA BALORATZEKO SISTEMAK ETA PROZEDURAK ETA GAINDITZEA.**

**RESOLUCIÓN DE 6 DE NOVIEMBRE DE 2023, DEL DIRECTOR GENERAL DE LA ACADEMIA VASCA DE POLICÍA Y EMERGENCIAS, POR LA QUE SE ESTABLECEN LA DURACIÓN, LOS SISTEMAS Y PROCEDIMIENTOS DE VALORACIÓN Y SUPERACIÓN DEL PERIODO DE PRÁCTICAS DEL PROCEDIMIENTO SELECTIVO PARA INGRESO POR TURNO LIBRE EN LA CATEGORÍA DE AGENTE DE LA ESCALA BÁSICA DE LOS CUERPOS DE POLICÍA DEL PAÍS VASCO (ERTZAINZA Y POLICÍA LOCAL) Y SERVICIOS DE POLICÍA LOCAL, CONVOCADO POR RESOLUCIÓN DE 27 DE DICIEMBRE DE 2021 (BOPV nº 9, de 14 de enero de 2022).**

Ebazpen honek oinarri hauek ditu:

La presente Resolución se basa en los siguientes,

#### **AURREKARIAK**

#### **ANTECEDENTES DE HECHO**

**LEHENENGOA.-** 2021eko abenduaren 27ko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiaren ebazpenak (EHAA, 9. zk., 2022ko urtarrilaren 14koa) egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia kidegoetako (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) eta Udaltzaingo Zerbitzuetako Oinarrizko Eskalako agente kategorian txanda irekiaren bidez sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdia.

**BIGARRENA.-** Ebazpen horren hamabosgarren oinarriak ezarri eta arautzen du prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia. Eta 4.a) paragrafoan ezartzen du *prestakuntza-ikastaroa gainditzen dutenek praktikaldia egingo*

**PRIMERO.-** Mediante Resolución 27 de diciembre de 2021, del Director General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias (BOPV nº 9, de 14 de enero de 2022), se convocó procedimiento selectivo para ingreso por turno libre en la categoría de Agente de la Escala Básica de los Cuerpos de Policía del País Vasco (Ertzaintza y Policía Local) y Servicios de Policía Local.

**SEGUNDO.-** La Base Decimoquinta de esa Resolución establece y regula el curso de formación y el periodo de prácticas, determinando en su apartado 4.a) que, éste último *lo realizarán quienes superen el curso de formación* y se desarrollará en



*dutela beren jarduera-arloen arabera prestakuntza integrala lortzeko egokienak diren zentroetan edo bulegoetan, eta dagokion Polizia Kidegoko polizierbitzuen egitura eta funtzionamendua bereziki ezagutuko dituztela.*

*los centros o dependencias que, en razón a sus áreas de actividad, resulten más adecuados para procurar la formación integral, y el particular conocimiento de la estructura y funcionamiento de los servicios policiales del correspondiente Cuerpo de Policía”.*

**HIRUGARRENA.-** Halaber, 4.b) paragrafoan ezartzen da *“praktikaldia hasi aurretik, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiak ebazpena emango duela, praktikaldiaren iraupena, balorazio-sistemak eta – prozedurak, eta praktikaldiko destinoak eta horietan hasteko data ezartzeko”.*

**TERCERO.-** Asimismo, en su apartado 4.b) se determina que *“con anterioridad al inicio del periodo de prácticas, el Director General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias dictará Resolución por la que se establezcan la duración, los sistemas y procedimientos de valoración y superación del periodo de prácticas y se asignen los destinos en prácticas y la fecha de incorporación a los mismos”.*

**LAUGARRENA.-** 2022ko abenduaren 20ko ebazpenaren bidez, ezarri zuen 2021eko abenduaren 27ko ebazpenaren hamabosgarren oinarrian aurreikusitako prestakuntza-ikastaroa hasiko zela 2023ko urtarrilaren 11n.

**CUARTO.-** Mediante Resolución de 20 de diciembre de 2022 se estableció que el curso de formación previsto en la Base Decimoquinta de la Resolución de 27 de diciembre de 2021, comenzaría el 11 de enero de 2023.

**BOSGARRENA.-** 2022ko abenduaren 26ko ebazpenaren bidez izendatu ziren praktiketako funtzionario, 2023ko urtarrilaren 11tik aurrerako ondorioekin, 2021eko abenduaren 27ko ebazpenak deitutako hautaketa-prozeduran Ertzaintzarako hautatutako pertsonak.

**QUINTO.-** Mediante Resolución de 26 de diciembre de 2022 se nombraron funcionarios y funcionarias en prácticas, con efectos al 11 de enero de 2023, a las personas seleccionadas para la Ertzaintza, a través del procedimiento selectivo convocado por la Resolución de 27 de diciembre de 2021.

2021eko abenduaren 27ko ebazpenak egindako deialdian parte hartu zuten Udaltzaingoetarako eta Udaltzaingo Zerbitzuetarako hautatutako pertsonak praktiketako funtzionario izendatu zituzten organo eskudunek.

Las personas seleccionadas para los Cuerpos de Policía Local y para Servicios de Policía Local participantes en la convocatoria efectuada por la Resolución de 27 de diciembre de 2021, fueron nombradas funcionarias en prácticas por los respectivos órganos competentes.



**SEIGARRENA.-** 2023ko urriaren 31ko ebazpenaren bidez, aipatutako hautaketa-prozeduran ezarritako prestakuntza-ikastaroa gainditu duten praktiketako funtzionarioen kalifikazioak argitaratu dira.

**SEXTO.-** Mediante Resolución de 31 de octubre de 2023 se han hecho públicas las calificaciones de los funcionarios y funcionarias en prácticas que han superado el curso de formación previsto en el proceso selectivo de referencia.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTO DE DERECHO

**BAKARRA.-** 2021eko abenduaren 27ko ebazpenaren hamabosgarren oinarrian ezarritakoaren arabera, eta praktikaldia, nahitaezkoa eta baztertzailea, arautzeko,

**ÚNICO.-** De acuerdo con lo establecido en la Base Decimoquinta de la Resolución de 27 de diciembre de 2021, y con el fin de regular el periodo de prácticas, de carácter obligatorio y eliminatorio,

## EBAZTEN DUT

## RESUELVO

**LEHENENGOA.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako eta Udaltzaingo Zerbitzuetako Oinarrizko Eskalako agente kategorian aurretik sartzeko praktikaldia, nahitaezkoa eta baztertzailea, hasiko da 2023ko azaroaren 14an. Amaitzeko azken eguna 2025eko martxoaren 13a izango da.

**PRIMERO.-** El periodo de prácticas evaluable, de carácter obligatorio y eliminatorio, previo al ingreso por turno libre en la categoría de agente de la Escala Básica de los Cuerpos de Policía del País Vasco y Servicios de Policía Local, se iniciará el día 14 de noviembre de 2023 y tendrá como fecha máxima de finalización el día 13 de marzo de 2025.

Ebazpen honen I. eranskinean agertuko dira praktikaldia hasiko duten Udaltzaingoetako eta Udaltzaingo Zerbitzuetako praktiketako funtzionarioak.

Se relacionan en el Anexo I a la presente las personas funcionarias en prácticas de los Cuerpos de Policía Local y Servicios de Policía Local que iniciarán el periodo de prácticas.

Ertzaintzako praktiketako funtzionarioen praktikaldia egiteko destinoak esleituko dira ebazpen espezifiko baten bidez.

Los destinos para realizar el periodo de prácticas de las personas funcionarias en prácticas de la Ertzaintza serán asignados mediante Resolución específica.



**BIGARRENA.-** Praktikaldiak 12 hilabeteko benetako lan-iraupena izango du. Gutxienez lanaldiaren %50 hartzen duen zatia hartuko da lan egindako eguntzat.

Ez dira lan egindako lanalditzat hartuko lizentziak eta baimenak hartzeko aldiak, ez eta lanegutegiarekin zerikusirik ez duten eta praktiketako destinoari dagokionez absentzia dakarten bestelako egoera personal edo laboralak ere.

Arrazoi horiengatik gertatzen diren abstentziak konpensatu egin beharko dira egoera horretan egon den denbora berean praktikaldia luzatuz.

Era berean, praktikaldia luzatuko zaie, baimenak irauten duen bitartean, adingabea zaintzeko eta jaio-baimena hartzeko eskubidea baliatzen duten pertsonen. Pertsona horiek karrerako funtzionario izendatuko dira luzatutako praktikaldia amaitu ondoren, betiere gai kalifikazioa lortu badute.

Praktikaldian ez bada bertaratzen, heren bat baino gehiago hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da automatikoki, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Aplikatu beharreko lan-egutegira ez bertaratzea, betiere praktikaldiaren herena gainditzen ez badu, aldi hori osorik osatu arte luzatus konpentsatu beharko da.

**SEGUNDO.-** El periodo de prácticas tendrá una duración de 12 meses de trabajo efectivo. Se computará como día trabajado aquella fracción que cubra al menos el 50% de la jornada laboral.

Se excluyen de la consideración de jornada trabajada, los periodos de disfrute de licencias y permisos y cualesquiera otras circunstancias de índole personal o laboral, ajenas al calendario laboral, que impliquen la ausencia respecto del destino en prácticas.

Las ausencias que por tales motivos se produzcan deberán compensarse prorrogando el periodo de prácticas por tiempo igual al que se haya permanecido en dicha situación.

Asimismo, se prorrogará el periodo de prácticas, por el tiempo que dure el permiso, de aquellas personas que se acojan al derecho de disfrute del permiso por nacimiento y cuidado de menor. El nombramiento de estas personas como funcionarias de carrera se efectuará una vez finalice su periodo de prácticas prorrogado, siempre y cuando hubiesen obtenido la calificación de Apta.

La falta de asistencia durante el periodo de prácticas por tiempo que exceda su tercera parte supondrá, salvo que concurra causa de fuerza mayor, la automática exclusión del proceso selectivo.

La falta de asistencia al calendario laboral de aplicación, siempre que no exceda de la tercera parte del periodo de prácticas, deberá compensarse prorrogando este periodo hasta completarlo en su totalidad.



**HIRUGARRENA.-** Praktikaldia emango da, jarduera-arloen arabera, izangaiaren prestakuntza integrala lortzeko egokienak diren zentroetan edo bulegoetan, eta dagokion Polizia Kidegoko polizia-zerbitzuen egitura eta funtzionamendua bereziki ezagutuko dituzte.

**TERCERO.-** El periodo de prácticas se desarrollará en aquellos centros o dependencias que, en razón de sus áreas de actividad, resulten más adecuados para procurar la formación integral de la persona aspirante, y el particular conocimiento de la estructura y funcionamiento de los servicios policiales de su Administración de destino.

**LAUGARRENA.-** Praktiakldian Euskal Herriko Polizia Kidegoetako Oinarrizko Eskalako agente kategoriari dagozkion zereginak betetzearekin lotutako eraginkortasun profesionala ebaluatuko da. Ebaluazioa praktikaldiak irauten duen bitartean gertatzen diren gertakariei buruzkoa izango da soilik.

**CUARTO.-** Durante el periodo de prácticas se evaluará la eficacia profesional vinculada con la ejecución de tareas propias de la categoría de agente de la Escala Básica de los Cuerpos de Policía del País Vasco en los servicios o unidades policiales mencionadas. La evaluación recaerá únicamente sobre los hechos que acontezcan durante el periodo establecido de duración del periodo de prácticas.

**BOSGARRENA.-** Praktikaldiaren ebaluazioa eta balorazioa ebazpen honen II. eranskinean onartutako ebaluazio-tresnaren arabera egingo da.

**QUINTO.-** La evaluación y valoración del periodo de prácticas se realizará conforme al instrumento de evaluación que se aprueba, y que se adjunta a la presente Resolución como Anexo II.

Hautagaiak bere lana egitean duen egokitasun profesionalaren ebaluazioa lau hilean behin baloratuko da.

La evaluación de la idoneidad profesional de las personas funcionarias en prácticas en el desempeño de su trabajo se realizará con periodicidad cuatrimestral.

Praktikaldiaren azken kalifikazioa emandako txostenetan oinarrituta egingo da, eta GAI edo EZ GAI izango da; eta, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki-taulan argitaratuko da.

La calificación final del periodo de prácticas se realizará con base en los informes emitidos y será de APTO/APTA o NO APTO/NO APTA; se hará pública en el Tablón de Anuncios de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.



Balioespen-tresnan jasotzen den bezala, eta bertan agertzen den kalifikazio-sistemarekin bat etorriz, praktikaldia gainditzeko emandako txosten bakoitzean gaitasun-adierazpena lortu behrako da; ebaluazio-txostenean Gaitzat jotzeko, ebaluatutako zazpi faktoreetatik gutxienez, sei gainditu beharko dira.

Tal y como se recoge en el instrumento de valoración, y de acuerdo con el sistema de calificación que en él figura, la superación del periodo de prácticas exigirá la obtención de la declaración de aptitud en cada uno de los informes emitidos; para ser considerado Apto/a en el informe de evaluación se deberán superar, como mínimo, seis de los siete factores evaluados.

**SEIGARRENA.-** Praktikaldia ebaluatzeko, bi ebaluatzaile izendatuko dira: tutore bat eta gainbegirale bat.

Ebaluatzaile horiek Ertzaintzaren edo Udaltzaingoaren karrerako funtzionarioak izango dira, eta agente lehena kategoria gutxienez izan beharko dute.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako abstentzio-eta errekusazio-arrazoiak aplikatuko zaizkio tutorea eta gainbegiralea izendatzeari.

**SEXTO.-** Para la evaluación del periodo de prácticas se designarán dos personas evaluadoras: un Tutor/una Tutora y un Supervisor/una Supervisora, que serán funcionarias de carrera de la Ertzaintza o de los Cuerpos de Policía Local, que deberán tener la categoría mínima de Agente Primero, a quienes serán de aplicación las causas de abstención y recusación contempladas en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Interesdunei uneoro jakinaraziko zaie tutorea eta gainbegiralea nor diren, III. eranskinean agertzen den aktaren bidez.

Las personas interesadas serán informadas en todo momento de la identidad del Tutor/Tutora y del Supervisor/Supervisora, mediante Acta expresa, que se adjunta como documento en el Anexo III a la presente.

**ZAZPIGARRENA.-** Ebazpen honetan aurreikusi ez den guztirako, Euskal Herriko Poliziaren hautaketa- eta prestakuntza-araudia onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretua aplikatuko da.

**SÉPTIMO.-** En todo lo no previsto en la presente Resolución, será de aplicación el Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco.

**ZORTZIGARRENA.-** Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean argitaratzea, eta interesdunei jakinaraztea haren aurka, administrazio-bidea amaitzen baitu,

**OCTAVO.-** Publíquese en el Tablón de Anuncios de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, comunicando a las personas interesadas que contra la misma, que pone fin a la vía



aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diotela Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

administrativa, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Director General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación o notificación.

Bestela, zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

Podrá, alternativamente, impugnarse directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Interesdunek jurisdikzio-aurkaratzea aukeratzen badute, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzien epaitegi eskudunean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. artikulua arabera.

Si las personas interesadas optan por la impugnación jurisdiccional, procederá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente a la fecha de su notificación, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo competente conforme al artículo 14 de la Ley 29/1998, de 13 de julio.

Andres Zearreta  
Otazua

2023.11.06 12:19:50  
+01'00'

Sin./Fdo.: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusia/Director General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias



Ebazpenaren Eranskinak interesdunen eskura dago Donostiako Udaleko Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritzan.

Los Anexos a la Resolución se encuentra a disposición de las personas interesadas en la Dirección de Gestión de Personas del Ayuntamiento de San Sebastián

Donbostian, 2023ko azaroaren 10ean

**HAUTAKETA ZERBITZUA**